

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/7/2 | 327

- Euskararen semaforoaren lehen urteurrena
- Atez ateko zabor bilketa atzera bueltarik gabe
- Begoña Ibarrola adimen emozionalaz
- Ez dut egarririk!
- Ehunmilak ultratraila uztailaren 16an
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Martin Pozo Garmendia,
Ezka**b**an hildako
tolosarra



JOXE MARI IPARRAGIRRE

BIGARREN HEZKUNTZAKO
INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
UZTAILAREN 7TIK 13RA (BIAK BARNE)

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.

Sta. Barbara bidea, z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZIN. SBT



AMAIA ETXETXIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



harria gresak

25 urte zure bainugela janzen
Neurrira egindako bainugelatan
espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com



Nerea Lentzeria Aukera guztiak bainujantzietan.

Etxe onekin egiten dugu lan:
Anita, Felina, Evelyn, Selmar, Gullio,
Set, Pierre Cardin, Lohe, Massana, Golden Lady...

Errementari kalea - Tolosa



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Ezkaban hildako tolosarra

Felicitas Pozo Garmendia tolosarrak 70 urtez nozitu zuen Martin anaiaren arrastorik ezak sortarazten zion mina. Martin Pozo Garmendia Iruñeako Ezkaba mendiko kartzelan hil zen 1939an. 2006ko abenduan Ezkaban hildakoen berri jakiteko ikerketak abiatu zituztela irakurri zuen Felicitas berak egunkari batean...

8-11. orrialdeak

Autokritika beharra aldarrikatzen dut. Hemen urteetan ikaste-txeetatik gazte euskaldun ugari atera da eta euskarazko argitalpenak badira... baina gogoetarik egin al da zergatik ez duten gazteek kalean euskaraz egiten edo zergatik ez den gehiago irakurtzen?

Elkarrizketa: Juan Inazio Hartsuaga

16-19. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Mikel Olano eta Antton Izagirre	4-5
	Normalizazioa: Euskararen semaforoak urtebete	6-7
	Eskualdeko albisteak: Atez ateko bilketa atzera bueltarik gabe	12-13
	Eskualdeko albisteak: Begoña Ibarrola adimen emozionalaz	14-15
	Koxk: Ez dut egarririk!	21
	Kirol saltsa: ehunmilak ultratrail-a uztailaren 16an	22-23



Mikel Olano
Batzorde Iraunkorraren izenean

4 “Amets polit polit bat izan dut bart” zioen gure abestiak eta oso ondo islatzen zuen ekainaren 13an Eskola Txikien festaren atarian zein zen gure nahia, gure sentipena. Urte osoko bizipenak genituen soinean, urte osoko lana eta ahalegina eta amaiera nola ez, amest polit bat bezalako izatea nahi genuen.

Altzotik, mila esker zuri

“Bi ginen ta zu hiru, zenbat miru”: Miru asko, milaka miru, hori bai, hegan etorri orde, autobusez inguratu zineten Otsabioren magalera ekainaren 13an. Eta hantxe geunden zure zain. Nolako harrera egin genizun? Bete al genuen aurrez esandakoa? Alegia, Altzok hartuko zaitu bere altzoan.

Harreraren ondotik, ondo pasa al zenuen prestatutako ekitaldietan? Gustura jardun al zuten seme/alabek jokuetan?. Gustatu al zitzaizun prestatutako erakusketa? Eta, lekuko aldaketa? Aizu, eta ia herri osoa oholtza gainera igo ginenean zer... ondo abestu al genuen?

Eguerdia iritsi zen eta tripa zorriak sentitzen hasiak dagoeneko. Egunak merezi zuen eta gosea kentzeko mokau goxo bat egitea onena. Frontoian prestatu genuen bazkaria zuretzat. Ondo bazkaldu al zenuen? Again nahiago izan zenuen etxetik ekarzea eta lasai lasai lagun artean bazkaltzea. Horrela egin bazenuen, kafe ona hartu al zenuen?

Hainbeste galdera egin ondoren, ordua izango da gure egun horretako sentipenak agerian jartzeko. Guk bai, aitortzen dizugu, egun ederra pasa genuela zure ondoan. Milaka miruren bueltan oso gustura sentitu ginen. Alaitasun

eta kolorez bete zenuten gure herria. Ez hori bakarrik, baita ondo zaindu eta txukun txukun utzi ere. Bejondeizula!

“lehen txiki ginenok ia handi gara askoz handiago zu batzen bazara”

Esaten zuen abestiaren estribilo edo errepikak. Zer esango dizugu bada zuri, kontua ez da txiki edo handi izatea, ez gara bizi handi izatearen desioan. Lehen

txiki ginenok orain ere txiki gara, baina nor izan nahi dugu. Horixe da ekainaren 13an zuri esan nahi genizuna.

Zuri jakinarazteko eta bide batez Altzoko etorkizuna lantzeko, elkartu ginen herri osoa, oraingoak eta iraganekoak. Zertara etorri ziren bada Altzoko Erraldoai, Imaz Bertsolaria, Pello Errota, Asteasuko Itsua, Artzaun eta Txanbolin?

“Zu batzen bazara” aurrez ere ziur geunden eta zer esango dizugu ba amaieran zuri, izan laguntzaile, babesle, komunikabide ezberdineko ordezkari, udaletxe, eskola txikitako ordezkari, irakasle, guraso, ikasle, aitona, amona... eguna fresko antzekoa izanik ere, gertu gertuan sentitu genuela zure epela. Mila esker zuri!

Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari


Orain, hilabete batzuk beranduago, beste auzi baten atarian aurkitzen gara eta auzi honek ere badu antzekotasunik Egunkariaren auziarekin alde-ratuta. Egunkariarena bezala Udalbiltzarena garaiko bulkada politikoak Euskal Herriaren eta euskal nortasunaren aurka eragindako erasoaren ondorio dela ulertu du euskal komunitateak eta Egunkariaren kasuan bezala argi erakusteko estatuari eta bera sostengatzen duten eragile politiko eta erakunde judizialen aurrean nahikoa dela esatekogaraia da. Ezin dugula onartu inongo frogarik gabe eta inpunitate osoz 22 lagunen aurkako hamar eta hogeitabost urte arteko kartzela zigorrak erabakitzea. Izan ere, Aznarren garaietan Euskal Herriaren eta bere askapen deiadarraren aldeko zernahi ekimenen aurka abiatutako gurutzada baten atal instituzionala da Udalbiltzaren aurkako erasoa.

Gogoratu behar dugu Udalbiltza 1999an jaio zela Euskal Herriko zazpi lurraldetako mila eta zortzirehun hautetsik Bilbon eginiko asanbladaren ondorioz. Udalbiltza, Euskal Herriko Udala eta Udala hautetsien Biltzarra dela, lehen instituzio nazional garaikidea. Udalbiltzaren egitekoen artean Euskal herria nazioa dela aldarrikatzea, nazio eraikuntza bultzatzea, egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza ematea, udalerrien arteko harremanak eraikitzea eta nazioartean Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea da.

Geroztik bere ibilbide labur baina oparoan Udalbiltzak egitasmo ugari gauzatu ditu. Baina, egindako lana delitua ez izan arren 2003ko apirilean, Espainiar Auzitegi Nazionaleko epaile zen Baltasar Garzonek aginduta, Espainiako poliziak, udalbiltzaren egoitzak itxi eta Udalbiltzako hautetsi eta langileak atxilotu zituen. Gaur pertsona horiek "erakunde terroristako kide izatearen balizko delitotuz" akusatuta kartzela zigor luzetara kondenatuak izateko arriskuan aurkitzen dira.

Egoera hau publikoki salatzen eta Udalbiltza Euskal Herriko Nazio instituzioak, zilegitasun osoa duela bere jarduerarekin aurrera jarraitzeko eta bere aurkako erasoak bertan behera uztea eskatzeko garai da eta auziaren inguruan benetako giza uholdea sortu beharra dugu. Beraz jokoan dagoena ez da soilik hogeitabi euskal herritarrek izan dezaketen zigor mehatxua. Auzia haratogo doa, jokoan dagoena hautetsiek beren eginkizunetarako erakundeak sortzeko duten eskubidea etetera letorke.

Udalbiltza garai hartan sortu izan ez balitz, gaur sortu behar litzateke. Orain, ziklo politiko berri eta itxaropentsuaren aurrean aurkitzen garen honetan sekulako paradoxa litzateke, udalbiltzaren bidez bakea eta herri nortasuna lantzen aritu direnak, akusatuen aulkian epaituak ikusi behar izatea eta are okarragoa dena, kartzeleratuak izatea.

Geure esku ere badago horren aurka aritzea. 




Antton Izagirre
Irakaslea

Egunkariaren aurkako auziaren epaian auzipetuen absoluzioa eman izanak hedatu du gure artean garaipenaren sentipena. Neurri handi batean ulertu da herriaren mobilizazioak eta auzipetuek lortu duten atxikimendu zabala oinarrizkoak izan direla epaia baldintzatzen orduan. Epaituen defentsak haien aurka zeuden akusazioak banan-bana ezeztatzen egindako lana bikaina izateaz gain herri mobilizazioak eta herritarren errugabetasun konbikzioak lortu dute euskal komunitate osora aurrez iragarritako aldeko epaiaren uste sendoa zabaltzea. Geroago, uste hori sententziak baieztatu duenean, denok geuretzat hartu dugu lorpena eta askotan makilkatua izan den herri itxaropena indartua aterata da.

Tolosaldeko Euskararen Semaforoaren lehen Urtebetetzea

Duela urtebete, Tolosaldeko semaforoetan kartel xeble batzuk agertu ziren. Karteletan, honako hau zegoen idatzita: "Semaforoak euskaraz". Herritarrek elkarrizketa galdezka aritu ziren: "Zer ote da hau?". Galdera horri erantzun nahian, hainbat azalpen ibili ziren bolo-bolo: kartelak hauteskunde kanpainarekin zerikusia zutela, semaforoetako entzunezko mezuak euskaraz jartzeko kanpaina zela, autoeskoletan gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina zela...

Azkenean, argitu zen misterioa: Tolosaldean euskara bultzatzeko blog baten berri eman nahi zen (euskararensemafora.blogspot.com), harridura eta jakin-mina piztuz. Dudarik ez da lortu zuela, baina urtebeteren buruan, zertan da bloga?




- Semaforoa elikatzen eta sustatzen talde eragile langile eta jator bat dago.
- Blogean argitaratzen diren albisteek semaforoaren kolore bat izaten dute: semaforo berdea euskararentzat eta euskaldunentzat positiboak diren albisteetarako, gorria albiste kezkarrietarako, eta laranja kontuz ibili beharreko kontuetarako.
- Zorionez, urtebetean gehiago izan dira berdeak gorriak baino: guztira, 100 albistetik gora eman dugu blogean, %60 berde, %20 laranja eta %20 gorri.
- Semaforoaren diseinua berritu dugunetik (urtarrilean), 5.500 bisitatik gora izan ditugu. Egun batzuetan, 300 bisitatik gora ere jaso izan ditugu.
- Bi astean behin 910 helbidetara bidaltzen ditugu blogean sartutako albisteak.
- Facebooken 410 lagunek egin dute bat Semaforoarekin.
- Blogak oihartzun handia izan du medioetan, eta ez bakarrik hasieran. Blogean argitaratu diren albisteak beste hedabide askotan azaldu dira: Garan, Berrian, Sustatun...
- Bloga, sarean ez ezik, uhinen bidez ere badago. Hilean, semaforokideak Txolarre Irratira joan eta semaforo berdeak eta gorriak banatzen ditugu.
- Herritar batzuk semafora bere egin dute, eta gurekin harremanetan jarri dira euren inguruan gertatutako zerbaiten berri emateko, baita euskararekin duten kezka jakinarazteko ere.
- Semafora ez da inoren jabetza. Zu ere semaforokide izan zaitezke. Jarri harremanetan gurekin, posta elektronikoko helbide honetan: euskararensemafora@gmail.com



Galtzaundi 327
10eko uztaileak 2

Eman argi berdea euskarari!

- Semaforoaren helburua ez da agerkari digital bat izatea, euskararen aldeko dinamika eraginkor bat lortzea baizik. Horregatik, semaforoaren helburua saretik aurrez aurreko ekimenak egitea da.
- Eskualdeko euskalgintzako eragile askotan etsipena da nagusi. Etsipena da, beraz, borrokatu beharreko arerio nagusia.
- Zoriontzeko ez ezik salatzeko gauza asko ikusi eta pairatu ditugu urtebetean. Horiek bere horretan jarraitzeko asmoa dutenez, guk ere hortxe jarraituko dugu. Semaforo gorri andana daukagu oraindik banatzeko, baina, aukeran, nahia-go berdeak banatu.
- Semaforokide potentzial asko daude, eta horietako asko semaforora hurbiltzea nahiko genuke. Zergatik ez zara gurekin harremanetan jartzen? Elkarrekin gauza asko egin ditzakegu. Egin bisitatxo bat eta idatziguzu! euskararen-semaforoa@gmail.com. ☺



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
ISASTU
XXI S.L.

INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

MATELAKO

Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

8

Martin Pozo Garmendia

Ezkaban hildako

“Idatzita zegoela dirudi”, esan dute Nieves eta May Gorostiaga Pozo anai-arrebek: beraien amak, Felicitas Pozo Garmendia tolosarrak 70 urtez nozitu zuen Martin anaiaren arrastorik ezak sortarazten zion mina. Martin Pozo Garmendia Iruñeako Ezkaba mendiko kartzelan hil zen 1939an, iturri ofizialen arabera tuberkulosiak jota. 2006ko abenduan Ezkaban hildakoen berri jakiteko ikerketak abiatu zituztela irakurri zuen Felicitas berak egunkari batean. Negarrez joan zen Nieves alabarengana. Seme-alabak eta ilobak lanean jarri ziren inoiz ezagutu ez zuten osabaren arrastoaren atzetik. Handik hilabetera Felicitas ospitalean hartatu behar izan zuten. 2007ko urtarrilean hil zen, Martin Pozo Garmendia Ansoaingo hilerrian hilobiratua zegoela baieztatu zen egun berean.

Leire Zubeldia

Argazkia: Gorostiaga Pozo sendia

tolosarra

1936ko abenduaren 1ean espetxeratu zuten Martin Pozo Garmendia Ondarretako kartzelan. Ezkerraldeko errebolta-rikiko atxikimendu delituagatik epaitu zuten 1937ko martxoan egindako gerra kontseiluan. Aranzadi Zientzia Elkartek "Tolosa 1936-1945" ikerketaren baitan jasotako lekukotzen arabera, Martini bere anaia Rafaellek burututako ekintzak leporatu zizkioten. Ondarretako espetxean eman zituen 1937ko maiatza bitarteko egunak; hilabete horretako 4.ean Antsoaingo Ezkaba mendiko kartzelara eramán zuten. Bertan hil zen 1939. urteko abuztuaren 2an.

Martin atxilotu zutenean Felicitas erbestean zen bere amarekin batera. 6 urte inguruko neskatoa zen orduan. 2 urtez egon ziren Frantzian eta Katalunian, eta denbora horretan ez zuten izan Euskal Herrian geratu zen familiaren berririk. Mikel Errazkinnek, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, 2007ko abenduan egindako elkarrizketan, Felicitasek honela azaldu zuen: "hobe izango zen familiakoak ere gurekin etorri izan balira; aita atxiloturik egon zen denbora batez eta Martin eta Rafael-ek alde egin behar izan zuten Tolosatik. Hernanira joan ziren, han senideak baikenituen. Gero Martin harra-patu egin zuten eta Rafaellek ihes

egitea lortu zuen, geroago atze-man bazuten ere". Felicitas-en hitzetan Zestoan atxilotu zuten anaia Martin. Erberstetik itzuli eta denbora batera eskutitz bat jaso zuen Pozo-Garmendia sendiak: Ezkabako kapilauaren gutuna zen, Martin tuberkulosiak jota hil zela jakinaraziz.

Eskutitza iritsi zen eguna


"Gure amakaskotan kontaktzen zigun nola egun batean eskutitz bat iritsi zen etxera. Eskutitza ireki eta aita eta ama negarrez hasi zirela gogoratzen zuen. Irudi hori gogoan iltzatuta geratu zitzaion, eta behin eta berriro errepikatzen zigun", azaldu dute Nieves eta May Gorostiaga Pozo anai-a-

rrebek. Gainontzean, Felicitas-ek ezer gutxi gogoratzen zuen bere anaia Martinez. Izan ere, Martin atxilotu zutenean 6 urte besterik ez zituen. "Hori bai, esaten zuen Martinen antza handia zuela berak; hala esan izan ziotela senideek". Anaia edo semearen heriotzaren berri jakitean, Pozo Garmendia sendiak pertsona maitatuaren galera onartu eta erraiak erretzen zizkien samina barruan gorde zuen. "Amak kontaktzen zigun beldur handia zegoela garai haietan, ezin zela ahorik ere ireki". Dena den, Felicitas-ek eta bere anai-arrebek (Rafael, Rafaela eta Conchi. Denak zendu dira) beti izan zuten gogoan anaia Martin, eta ondo-



Ezkaban hildakoen izenekin monolittoa inauguratu dute aurten.

10



rengoei ere osabari buruzkoak kontatzen zizkieten. "Amak eta osaba-izebek osabaren hutsunea transmititu digute. Nahiz eta ez ezagutu, Martin osaba zen guretzat. Familian kide bat falta zen sentimendua errotu ziguten hasieratik", kontatu du Nievesek, "adibidez, autoz Iruñeara joaten ginen bakoitzean, Ezkaba paretik pasatzerakoan amak beti esaten zigun: begira, hor hil zen osaba Martin", jarraitu du May-k. Amak seme-alabentzako gertuko pertsona bilakatu zuen Martin. Agian, horregatik ez dute etsi osaba zenaren parade-ora aurkitu arte.

"Idatzita zegoela dirudi"

"Badirudi idatzita zegoela, eta bera hil aurretik osabaren arrastoaren bidean jarri behar gintuela amak", adierazi dute anai-arrebek. Nieves-ek ongi gogoratzen du 2006ko abenduan amak egun-rikako errekorre bat erakutsi zion

unea: "negarrez etorri zitzaidan, Ezkaban hildakoak aurkitzeko ikerketa egiten hasi zirela esanez. Harriturik geratu nintzen 70 urte beranduago nola egiten zuen negar ikusita". Nieves-ek honela esan zion orduan amari: "lasai ama, behar den hariak mugituko ditugu osaba non dagoen jakiteko". Telefonoa hartu eta hara eta hona deika hasi zen Nieves, eta anai-arreba zein lehengusuak ere burubelarri jarri ziren beste hari batzuetatik tiraka. Azkenean Antsoaingo Txinparta elkartearekin eta bertako arduradun Koldo Pla-rekin harremanetan jartzea lortu zuten. Artean, Aranzadi Zientzia Elkarte "Tolosa 1936-1945" ikerketa burutzen ari zen eta Mikel Errazkin teknikaria izan zen Gorostiaga Pozo sendiaren etxean, Felicitas-i elkarrizketa egiten. "Txinpartakoen eta Aranzadikoen bidez jakin genuen osaba Antsoaingo hilerrian egon zitekeela. Ezkaban hildako guztiak inguruko herrietako hilerrien kontra-muroan hilobiratzen zituztelako. Gainera, Aranzadi Zientzia Elkarteak

Antsoaingo erregistro parrokiala eskuratu zuen, eta bertan jartzen zuenez, osaba Antsoaingo hilerrian zegoen hilobiratuta". 2007ko urtarrilaren 18an baieztatu ziren susmoak: Martin Pozo Garmendiak Antsoaingo hilerriko hobi-komun batean zetzan. Egun horretan zendu zen Felicitas Pozo Garmendia.

Anaiaren izena

Maiatzaren 24an ospatu zuten Ezkabako kartzelako ihesaldiaren 42. urteurrena. Han izan ziren Nieves, May eta euren anai-arrebak, baita lehengusu eta lehengusinak ere. "Egun horretan inauguratu zen Ezkaban hildakoen izenak jartzen dituen monolittoa. Alde batean, herriko zibilen izenak daude, eta bestean kartzelako biktimenak. 2007an, lehenengo aldiz Ezkabara joan ginenean sasiak hartutako mendi pusketa bat baino ez zen; orain beste itxura bat du, eta izenak hor daude". Izena: horrek betetzen ditu gehien. "Gure amak garrantzia handia ematen zion bere anaiaren izena nonbait idatzita ikusteari", azaldu dute. Arrazoi ezberdinengatik, zaila da Martin datzan hobia deshobiratzea. Gorostiaga-Pozo sendiari osabaren errausak hona ekartzea gustatuko litzaioke. Dena den, gustura daude lortutakoarekin. "Gure ama lasai legoke horrela, beraz, gu ere bai".

Elkarrizketatuek Aranzadi Zientzia Elkarte eta Nafarroako Txinparta elkarteak egiten ari diren lana azpimarratu eta eskertu nahi izan dute. Bide batez, instituzioei, frankismoaren biktimen memoria berreskuratzeko erraztasun guztiak ematea eskatu diete.



Ezkaba

“Infernuko sarrera”

Salbador Zapirain “Ataño” bertsolariak, infernuarena-rekin konparatu zuen Ezkaba presondegiko ataria: “goitik beera, zulora, inpernu bereko sarrera”. Danteren Infernua poema gogoan ondoko idatzita:

*“Jaungoikoaren zigorra naiz ni,
infernua det izena,
atsedenik ez, zigorra beti
Kezka gaixtoen eztena;
ortz-karraskada, izu-ikara,
pozik ez dagon barrena.
Onuntz zatozen orrek uztazu
Atean itxaropena.”*

Iruña eta inguruak zain-tzeko eraiki zuten Ezkaba mendiko gotorlekua. Batzuek San Kristobal ere deitzen diote mendiari, garai batean tontorrean zegoen ermitaren izenez. Gerra Karlisten hondar-rean, 1878an hasi ziren eraikitzen fortea. Karlismoa berriz piztuko zen beldur ziren eta hari nola edo hala aurre egin beharra zegoen. Lurreko armada kontrolatzea zen xedea eta sekulako gotorleku militarra egin zuten horretarako: sakonean dago egina eta goitik estalia, kanpotik edo behetik ez da ezer ikusten. Denborarekin eredu paradigmatico bihurtu da. Gotorlekua, ordea, ez zuten 1919ra arte amaitu. Ordurako, Lehenengo Mundu Gerra tarteko, hegazkinak sortu ziren eta beraz, Ezkabako gotorlekua ez zuten sekula erabili, ez gotorleku moduan, bederen. Izan ere, airetik hura



Ezkabako espetxean bizi baldintzak oso gogorrak ziren.

ikustea erraza zen, baita bonbak jaurtitzea eta suntsitzea ere. Bertako presondegia, ordea, Errepublika garaian erabili zuten lehen aldiz eta 36ko gerran ondoren.

Iruñerriko Ezkaba mendiko kartzelan 9 urtetan 700 preso errepublikar baino gehiago hil ziren. Horietako berrehun baino gehiagoren izena ere ez da ezagutzen, ez baitzituzten inon idatzi. Horietako batzuen gorpuak berreskuratu zituzten Franco hil ondorenean, baina beste batzuk desagertuta daude. Kartzelan erregistratu zituzten preso hilen artean, batetik, 1938ko ihesean hil zituzten 207 presoak daude. Haietako gehienak hil ziren lekuan bertan lurperatu zituzten: Ezkabarten, Odietan, Esteribarren, Eguesibarren... Hobi batzuk ezagutzen badira ere ezezaguna da non dagoen nor.

Horiez aparte, 1936tik 1942ko maiatza bitartean hil zirenak Antsoaingo zendea-

ko herri txikietako hilerrietan lurperatu zituzten. Lehen urteetakoak fusilatuak dira, hilerrietan bertan fusilatuak. Azken urteetakoak, berriz, gaixotasunen ondorioz hildakoak. Tuberkulosiaren ondorioz asko, eta gosez beste batzuk. Horietako bi tolosarrak ziren: Martín Pozo Garmendia (1917-1939) eta José Larreta Lasa (1900-1941) lehena tuberkulosiarengatik hila eta bigarrena bihotza geratuta.

Ezkaban hildakoak asko zirenez herrietako agintariak kexatu egin ziren, hildako herriarentzat lekurik ez zelako geratzen. Gotorleku ondoan hilerri bat egin zuten, beraz. Presondegiaren ondoan 615.000 metro karratuko hilibi handi bat da. Presondegian hildako 131 lagun gorpuak daude lurperatuta; abertzale, errepublikano, komunista eta anarkisten gorpuak dira, 1942-1945 urteen artean hildakoak.

Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarrekin eskatuta, Ezkabako hilibian ikerketak egiten hasi ziren 2007an Aranzadi Zientzia Elkarteko antropologia taldea eta Antsoaingo Txinparta Kultur Elkarrekin. Lurperatuta zeuden 131tik 37ren hilotzak atera dira. Eskeleto guztiek hanka artean, bi bernahezurren artean zehazki, botila bat zeukaten. Botila horiek heriotza agiri bana dute barruan, agiri ofizial bat, hildakoaren identitatea eta heriotzaren arrazoiak azaltzen zituen.

José María Jimeno Juriok eskuratutako dokumentu bati esker jakin ahal izan dute lurperatuen zerrenda. Bertako parrokoak hilibiaren krokis bat gorde zuen. Bertan hilibi guztiak zenbakituta ageri dira eta aldamenean zenbaki bakoitzari dagokion izenen zerrenda agertzen da. Krokisean kale guztiak markatuta daude. Bost kale daude eta gero goitik beherako marrek laukiak osatzen dituzte. Lauki horiek hilibiak dira eta zenbakiak ez ezik, gorpua zein egunetan lurperatu zuten ere azaltzen da. Krokisean bi ehorzketa leku bereizi zituen apaizak: katolikoa eta zibila. Azken hori ehorzketa katolikoari uko egiten ziotenentzako zen. Bereizketa hori gehiago izan zen espirituala, fisikoa baino, gorpu guztiak hilerri berean baitzeuden.



Tolosaldeko bost udal euren herrietan atez ateko zabor bilketa jartzeko proiektua lantzen hasi dira

“Atez ateko zabor bilketa jartzeko apustuak ez du atzera bueltarik”



Argazkia: Tolosaldeako Hitza

“Atez ateko zabor bilketa hipotesi bat besterik ez zen lehen. Orain, Usurbilek, Hernanik eta Oiartzunek frogatu dute hondakinen kudeaketa sistema hau eraginkorra dela”, azaldu dute Periko Peñagarikanok eta Aitor Sarasolak, hurrenez hurren, Anoeta eta Alegiako alkateek. Atez ateko zabor bilketa errealiategia da; eta honek atzera bueltarik ez duen moduan, aipatutako bost udalek atez ateko bilketa jartzeko abiatu duten bidean ere soilik aurrera pausoak emango dituztela ziurtatu dute. “Esan daiteke, dagoeneko hasi garela proiektuarekin. Lanketa azpi-azpitik hasi beharra dago. Ez dakigu emaitzak noiz ikusiko diren, baina jakina da denbora beharko dugula horretarako. Usurbilgo ordezkariarekin lehenengo harremanak izan ditugu, bertara ere joan ginen bilketa sistema ezagutzeko; bestetik, Tolosaldeko Mankomunitateari ere eman diogu gure asmoen berri, eta galdetu diogu, ea atez ateko bilketa martxan jartzeko proiektuaren finantzaketa beregain hartuko lukeen. Erantzunaren zain gaude”. Erantzuna bat edo bestea izan, Peñagarikanok eta Sarasolak azpimarratu dute euren asmoarekin aurrera jarraituko dutela. Tolosaldeko mankomunitateak duen kutxa batetik finantzatu dira eskualdeko hiru herrietan jarri beharreko bosgarren

Ekainean prentsaurrera atera ziren Anoeta, Alegia, Ikaztegieta, Villabona eta Adunako alkateak euren udalerrietan atez ateko zabor bilketa jartzeko proiektua lantzen hasi direla jakinarazteko. Tolosaldeko Mankomunitateak eskualdeko zenbait herrietan bosgarren edukiontzia jartzeari argi berdea eman dionean aldarrikatu dute bost udalek hiri hondakinen kudeaketa eraginkor baten beharra.

Erredakzioa

edukiontzia; zehazki, Tolosa, Andoain eta Villabonan jartzea aurreikusten zen. "Baina Villabonak ez du hondakin organikoa jasotzeko edukiontzirik jarri nahi eta uko egin zion proposamenari. Badirudi Villabonan jarri ordez lbarran jar dezaketela". Villabonaren ezezkoaren ondoren elkartu dira bost udalak, "bide antzuek alde batera utzi eta zezenari adarretatik eusteko".

Bosgarren edukiontzien emaitza "kaskarrak"

Donostiako Amara auzoan, Azpeitian, Azkoitian, Zarautzen, Zumaian eta Aretxabaletan jarri dituzte bosgarren edukiontzia. Honek hondakin organikoa biltzen du, gero berziklatzeko. Dagoeneko bi urte daramatzate funtzionamenduan. Anoretako eta Alegiako alkateek azaldu dutenez, datu kaskarrak eman dituzte berziklatzea lortu den hondakin kopuruari dagokionean. Emaitzak atez ateko zabor biltzetan Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen emandako datuekin alderatu dituzte: "Hernanin egun batean Zarautzen hilabete batean adina material organiko biltzen da, biztanlez antzera dabilzala kontutan harturik; Azpeitian hamabost egunean biltzen den kopuru bera biltzen dute egun batean Oiartzunen, nahiz eta azken hau biztanleria aldetik dezente txikiagoa izan; azkenik, Usurbilen, Amara, Zarautz, Zumaia, Azpeitia, Azkoitia eta Aretxabaletak, guztiek batera baino organiko gehiago biltzen dute". Emaitza hauen oinarrian zera dago: bosgarren edukiontzia soilik herritarren %15ak erabiltzen duela, bere erabilera borondatezkoa baita; aldiz, atez ateko biltzetan herritar guztiak inplikatu dituzte, era honetan berziklatze-indize altua lortuz. "Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen hiri

hondakinaren %81 berziklatzen da egun", azpimarratu nahi izan dute, "Tolosaldean berriz %30 berziklatzen dugu", jarraitu dute, "beraz badago bidea egiteko".

Ez dute atez ateko biltzeta jartzeko plan zehatzik oraindik, "baina badakigu bideragarritasun plan bat egin beharko dugula, eta informazio zein sensibilizazio kanpaina handi bat antolatu beharko dela, besteak beste". Ez dira hutsetik hasiko. Elkarriketatutako bi alkateek aipatu bezala, "Usurbilek zerbait ongi egin badu, atez atekoa jarri aurreko prozesu guzti hori izan da: lehenik informazio kanpaina indartsu bat egin zuten, ondoren galdeketa egin zuten, eta herritarren gehiengoaren borondatea betez jarri zuten atez atekoa". Honenbestez, Usurbilgo kasua "eredugarria" da eurentzat.

Aipatu bezala, bideragarritasun ekonomikoa da aztertu beharreko lehenengo puntuetako bat, baina bi alkateen aburuz, atez ateko biltzeta ez da egungo zabor kudeaketa baino garestiagoa izango. "Jaso dugun informazioaren arabera, ez da askoz ere garestiago ateratzen. Kontutan izan, zabortegira bidaltzen duzun zabor kopuruaren arabera tasa ordaintzen duela udal bakoitzak. Atez atekoarekin orain baino askoz gehiago berziklatuko litzateke, eta zabortegira askoz ere hondakin gutxiago bidaliko genuke". Ingurumenari eta herritarren osasunari begira ere, onura ugari ikusten dizkie biltzeta sistema honi: "konbentziturik gaudete, atez atekoarekin erraustegira bidali beharko litzatekeen zabor kopuru askoz ere gutxiago izango litzatekeela, hortaz, hondakin gutxiago erreko litzateke, eta ondorioz, hondakin toxiko gutxiago sortuko genuke guztion onerako". Atez atekoaren onurez ez ezik, sortzen dugun zaborrari

buruz hausnartzeko beharra azpimarratu dute. "Sortzen dugun zaborraz kontziente izan behar dugu, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatu. Munduko herrialde askotan ari dira jartzen 0 zabor ideia, eta hemen ere hori bultzatu behar dugu".

6 urteko moratoria erraustegiari

Ekainaren 20an Donostia erraustetaren aurka egin zen elkarretaratzearekin bat egin zuten Tolosaldeko bost udalak. Beraiek ere 6 urteko moratoria eskatu diote Foru Aldundiari, alegia, erraustegiaren egitasmo sei urtez atzeratzeko eskaerarekin bat egin dute: "ez gaude erraustegiaren kontra kontra egote hutsagatik. Frogatu da erraustegia baino egokiagok diren zabor kudeaketa sistemak badaudela. Sei urte horietan beste hainbat udalek martxan jar dezakegu atez atekoa, eta bide eraginkorra dela frogatzeko denbora gehiago izango dugu". Amaitzeko, Sarasolak eta Peñagarrikanok argitu dute zabor biltzeta sistemaren puntuan desadostasuna sortu izanak ez duela esan nahi Tolosaldeko Mankomunitatea utziko dutenik ez eta harremanak gaiztotuko direnik ere. ☺



Beti Añai
jatekoa



Garaian garaiko janariak
eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Heziketa emozionalaren garrantziaz ohartarazi zituen Begoña Ibarrola psikologoak Hirukideko hitzaldi aretoan bildu ziren gurasoak

0-6, garapen emozionalaren o

“Pertsonok sentitu egiten dugu lehenik eta gero pentsatzen dugu”.

Adierazpenok Begoña Ibarrola, adimen emozionalean aditua den psikologoak egin zituen Tolosako Hirukide ikastetxean emandako hitzaldian. Bera bezalako profesionalen lanari esker jabetu da gizartea alderdi emozionalaren lanketaren garrantziaz. Gurasoen eta irakasleen informazio gabezia betetze aldera emandako hitzaldian egon zen Gal-tzaundi: 0-6 adin tarteko garapen emozionala izan zen ardatza.

Erredakzioa

Garapen fisikoa gizakion kode genetikoan idatzirik dago; heldze egutegiak bermatzen digu hazi egingo garela, bakoitzak bere erritmoa duen arren. Baina garapen emozionala ez dago inongo kodeetan inskribaturik. Alegia: pertsona emozionalki garatzeko lanketa bat behar da. Hor sartzen da jokoan hezkuntza. “Garapen emozionalak ekintza hezigarriak behar ditu, kontzientek eta orientatiboak direnak. Heziketa emozionala prozesu bat da, jarrera eta iraunkorra, eta bere helmuga heldutasun emozionalera iristea izan behar du”, azaldu zuen Ibarrolak. Hezkuntza emozionalaren zeregin nagusia, haurrei beraien emozioak egoki kudeatzeko ezagutzak eta baliabideak ematea da. Hezkuntzak tresna bakoitzak zertarako balio duen

eta nola erabili behar den erakutsiko die, baina beraiei dagokie tresna horiek praktikan jartzea. Emozioen alorrean ere ekinaren ekinez ikasten da. “Tresna horiek behar beharrezkoak dituzte gure haurrek bizitzak jartzen dizkien erronkei aurre egiten jakin dezaten. Guk nahi edo ez, frustrazioak jasango dituzte; egoera zailekin egingo dute topo. Ez badago heziketa emozionalik, gizakiak ezin du erreakzio positibo bat inprobisatu”. Azken finean, adimen emozionalaren helbururik behinena pertsonaren ongizatea da: baliabideak izatea frustrazioa, mina zein desengainua gainditzeko; frakasoen ondoren errekuperatu eta borrokan jarraitzeko; egindako akatsak ez dramatizatze eta horietatik ikasteko... Hezitzaileren betebeharra da (irakasle eta gurasoena batez ere) gaitasun horiek garatzeko baliabideak ematea. Ibarrolaren hitzetan, horretarako oso garrantzitsua da etapa bakoitzean haurrei zer eskaini behar zaien jakitea.

Noiz gara emozionalki helduak?

Nork ez du ezagutzen egoera zail baten aurrean egoki erantzuten ez dakien 40 urtetik gorako pertsonarik? Badira emozionalki nerabeak diren pertsona helduak. Honen atzean hezkuntza emozionalaren gabezia dago. Eta zeintzuk dira ba emozionalki heldua den pertsonaren ezaugarriak? Psikologo hizlariak Steiner-en ekarpena bere egin zuen: “lehenik eta behin, bere sentimenduak ezagutzen ditu, bere mundu emozionalera sarbidea du eta bere sentimenduei izena

jartzen daki; bestalde, besteen emozioak ezagutzeko gaitasuna du, enpatikoa da, besteen lekuan jartzeko gai da beraz; hirugarrenik, berak kontrolatzen ditu bere emozioak eta ez emozioek bera”. Hiru elementu hauei beste bi ezaugarri gehitu zizkion: kalte emozionalak erreparatzen ikastea eta besteekin harreman egokiak izaten jakitea. “Azken gaitasun hauek ezin dizkiegu 0-6 adin tarteko haurrei eskatu, baina horretarako entrenatu egin ditzakegu”, gaineratu zuen. 5 urtetik aurrera has daiteke lanketarekin.

Gurasoak eredu

0 eta 3 urte artean, jarrera eta portaera gehienak gurasoengandik jasotzen dituzte haurrek. Gurasoen eta beraien harremana hartzen dute eredu. “Horrela, gurasoek umea minduta dagoenean erreparatzen jakiten badute, beraiek ere hortatik ikasiko dute, eta etorkizunean erraztasun gehiago izango dute jarrera enpatikoa garatzeko”. Kotsolatu izaten den umeak kotsolatu jakingo du beraz. Gurasoak eredu direnez, ardura handia daukate, eta ildo honetatik garrantzitsua da beraien emozioak kontrolatzen jakitea.

3-6 adin tartean berriz aurretik ezagutu duten helduen eredu beraien adinkideen artean islatuta ikusten dute. Hortik ikasketa berriak jasotzen hasiko dira. Lagunak ere eredu izango dira beraz etapa honetan.

Behar emozionalak

Behar emozionalak lehen



Oinarriak jartzeko garaia

mailako beharrak dira, elikadura eta loa bezainbat. Behar hauek asebetetzen ez badira, gabeziak sortuko dira.

Behar emozional oinarritzkoena segurtasuna eta konfidantza da, bai norberarengan eta bai besteengan. Azken hori helduekin dituzten erlazioen bidez lortzen dute txikienek. Prozesu horren bidez, emozio ezberdinak daudela ikasiko dute; eta horietako bakoitzak nola izena duen, nola adierazten den, nola maneiatzen den eta nola kontrolatzen den. Jakintza guzti horiek era kontzientean eta inkontzientean jasotzen dituzte. Iturri kontzientea ahozko komunikazioa da, eta ez-kontzientea aldiz, ahozkoa ez den komunikazioa. Ibarrolaren arabera oso garrantzitsua da bi iturri hauen arteko koherentzia. Zaila badirudi ere, azalpen sinplea du honek: "ama edo aita bere umeari haserre dagoela esaten ari zaion bitartean aurpegi tristea jartzen badu, haur horrek ahoz jasotzen duen informazioa eta aurpegikeratik jasotzen duena nahastu egingo ditu. Honela, hitz egiten hasten denean, adierazten duen emozioaren eta espresatzen duen emozioaren arteko kontraesana gertatuko da: pozik dagoela esango du aurpegi tristearekin". Inguruko pertsonengan konfidantza izatearen beharra 0-2 etapan asebate behar da bereziki. Etapa honetan behar hori betetzen ez bada, haurrek ez dute pertsonengan fidatzen ikasiko. Batez ere lehenengo urtea da binkulo afektibo eta emozionala eraikitzeko unea. "Garai honetan

haurrak arreta eskatzeko duen modu bakarra negarra da. Helduek negarra irakurtzen ikasi behar dute, gosea, mina edo besterik gabe, arreta nahi duen negarrez ari den haurrari kasurik egiten ez bazaio bera bakarrik isilduko delakoan? "Bada, haur horrek pentsatuko du inguratzen duten pertsonengandik ezin duela ezer espero. Ondorioz, koraza emozional bat sortzen du; ez du jakingo besteen sentimenduak perzibitzen, ez dute gaitasun enpatikorik garatuko".

2-4 urte artean autonomiaren beharra agertzen da. Beraien kabuz egiteko gai direla sentitu behar dute. "Ezinbestekoa da erabakigune txiki bat uztea. Kanpoan hotz egiten duela eta berokia jantzi behar duela bera ados egon edo ez, primeran; baina utzi izeaiozue zein beroki jantzi nahi duen aukuratzen". Beraien kabuz moldatzeko gai direla sentitzen ez badute, dependentziaren sentimendua garatzen dute, eta horrek lotsati bilakatzen ditu Ibarrolaren ustez.

4-6 etapan berriz, ohikoa da akatsak egitea. Helduek akats horiek onartzen ikasi behar dute. Izan ere, adin tarte honetan haurrak heldua izan nahi du, eta burutzeko gai ez den gauzak egin nahi izaten ditu. "Adin honetan entsegu-erroreen bidez ikasten dute. Beraz, haurrari ekimena galaraztea ikaste-

ko aukera kentzea da". Umearen saiakerak oztopatuz gero, kulpabilitate sentimendua ermetzen zaie, eta soilik egiteko gai diren punturaino egingo dute. "Haur hori segurtasunik gabe haziko da, ez du bere gaitasunenganaiko konfidantzarik izango". Beraz, haurra ekitera animatu behar da, eta ez dira egiten dituen akatsak penalizatu behar.

Psikologoak argi utzi zuen, kasu guzti horiek ez direla matematikoak eta orokorrean gertatzen denaz hitz egiten duela. Dena den, kontuan hartu beharreko aholkuak dira, seme-alabak emozionalki sendoak izan daitezien. ☺



URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa


GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia


Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Juan Inazio Hartsuaga

“Euskalgintzan borondate onaren apologia egiten da, baina ez da autokritikarik egiten”

16



Juan Inazio Hartsuagak (Tolosa, 1957) enpresari ikasketak egin ondoren, eta Euskal Filologia bi urtez ikasten aritu ostean, Antropologia ikasketak laurogehigarren hamarkada hasierako Paris ireki hartan egitea erabaki zuen. Bertan piztu zitzaion euskal mitologia ikertzeko gogo. Burutu-tako tesiaren harira, Euskal Mitologia Konparatua liburua argitaratu zuen 1984an; geroago plazaratu zuen Muniben Jentilen Akabera. Euskaldunon Egunkarian zuzendari komertziala eta zuzendaritza batzordeko kide izan zen urtebetez; eta beste urte bete eman zuen Behatokiko zuzendari gisa. Beti izaten du zerbait buruan irakiten, Isurpak moduko tetrabrik berriak asmatu eta merkaturatzeko ahaleginean. Euskararen inguruan gogoeta librearen aldarria eginez Euskararen Egoerari Irizten liburua argitaratu berri du, Gainontzeko Kezkak bigarren liburu batekin batera.

Felix Aiestaran

Parisen Antropologia ikasteko zein giroa aurkitu zenuen?

École des Hautes Études en Sciences Sociales (EHESS)-en Joxemiel Barandiaranen aholkuz hasi nintzen eta ikasteko sistema irekia zuen. Bertan, ez zegoen klaserik, mintegiak baizik. Bestetik ikasteko programa bakarra zegoen, ez zegoen mailaka antolatuta. Bertan 400-500 mintegi zeuden eta ikasleak lekuko izatea ahalbideratzen zuten leihoak ziren mintegi horiek, irakasle bakoitzak nola lan egiten zuen ikusiaz. Bigarren urterako doktoretzarako Jentilen Akabera aukeratu nuen. Ahozko tradizioa aztertzeke metodologiaz jabetu nintzen irakasle on baten ereduari jarraiki. Jentilen akaberako antzeko mitoak bilatu nituen Euskal herritik kanpo. Beste mintegia senidetan harremani buruzkoa zen: oso interesgarria. Gizakiaren ehun mila urteko historian, senide arteko eraketa arautzea oso korapilatsua izan da: ezkontza arau desberdinak daude, gizarte batzuetan ez dago osaba-izeben kontzepturik... familia kontzeptu desberdinak daude. Ikasteko era malguari esker liburutegian sakon arakatzeko aukera izan nuen eta euskal mitologiaz ikuspegi bete osatu nuen.

Nola osatu zenuen tesia?

Euskal Herritik kanpo, hemengo mitoen antzekotasunak bilduaz osatu nuen puzzleari forma eman behar izan nion. Irakasle ona izan arren liskarra izan nuen harekin, European zehar aurkitzen nuen euskal



Dena egiteko dago eta okerreko norabidetik aritu gara. Euskaldunen gehiengoa euskaraz ere badakiten erdaldunak dira: hori da hogeita hamar urteko lanaren uzta.



mitoen antzekotasuna indoeuroparren aurrekoa izan zitekeenik ez zuelako entzun ere egin nahi. Nire tesia egiteko Euskal herritik ez ateratzeko aholkatu zidan. Hura asebetetzearren, bat ez, bi tesi egin nituen. Hari esker, bigarren tesiaz argitaratu nuen Euskal Mitologia Konparatua liburua. Mitologiak garai guztietan izan dira eta aroz aro zer den ona eta zer txarra azaltzen dute. Mitologiak ideologia plazaratzen du. Gure mitologia inguruko herrialdekoekin alderatuz gero, konturatzen gara ez dagoela euskal jainkorik. Neolitikoan gizakia Naturatik atera eta bere jaun eta jabe egiten da. Animaliak etxekotu, landareak non hazi erabaki... Natura bere mendean hartu nahiko du eta horrekin batera eguraldia ere menperatu nahi izango du. Mari eta besteak hor ditugu, baina ez dute nahi bat, ez dira eredu gizakientzat, jainkoek gizakiarentzat izan behar duten moduan. Euskal mitologian ez da izan jainkoa nola, eguraldia hala; Mari non eguraldia hala, baizik. Euskaldunak Mari komeni den tokian jartzen saiatu izan dira; hori jainkoekin ezin da egin. Neolitikoan gizakiak libre dira eta herritarrek



“Euskalgintza motorrik gabe dago, euskaltzale gutxi baitago”

dute ekimena naturaren indarraren aurrean. Lanaren kultura gailendu zen euskaldunon artean: nekazal lanak bukatu ondoren ere lanean jarraitu beharra zegoen trikuharriak eta beste jasoaz. Bestetik, elkartasunaren filosofia zabaldua dago gaur egun ere. Hori ez da horrela gertatzen beste kulturetan. Jatorri askotatik edan du gure mitologiak Euskal Herria betidanik N-1 moduko igarobide garrantzitsua izan delako.

Zertan ari zara orain?

Ataunen euskal mitologiaren museoa egiteko asmotan ari dira eta nik bertarako euskal mitologia sailkatu eta edukiak osatzen aritu naiz. Lotsagarria da Euskal Unibertsitateak honetarako atea itxita izatea. Jen-deak ez du euskal mitologia ezagutzen. Plana abian jartzeko enpresari modura proiektu bideragarria egitea eskatu didate Ataungo Udaletik. Azken hamar urteotan Gipuzkoan be-

rrogeita hamar museo egin dira eta Diputazioak denen zuloak ezin ditu bete urte bukaeran. Museoek gainditu beharreko gaia, jendea erakartzearena da. Jendea ez da museoetara joaten, hemen museo bikainak dauden arren.

Enpresari modura ere aritu zara?

Enpresari ikasketak bukatu eta humanitateak ikasita bitxo arraroa nintzen, baina gaur egun, modan daude humanitateak ikasi duten enpresariak. Euskaldunon Egunka-riko zuzendari komertziala eta zuzendaritza kide izan nintzen. Euskaldunon Egunkari-ko auzian deitu izan ez dioten bitako bat naiz ni. 1991an

hasita, urte heroikoa izan zen. Ukitu profesionala eman nahi zioten eta horretarako deitu zidaten. Bestetik, asmatzen saioak egiten ditut. Isurpak izeneko tetrabrika egin nuen; Ulmak erosi zidan, baina geldirik dago. Bizikletak gordetzeko proiektu batekin ari naiz orain.

Behatokiko zuzendari lanetan izandako esperientzia azalduko al zeniguke?

Urtebete aritu nintzen, 2004an. Esperientzia ona izan zen, baina bukaera ez. Askotan gertatzen da erakundebatek ez jakitea zer nahi duen. Niri deitu zidatenean ekimen handiko pertsona bat nahi zuten. Lanerako

askatasun osoa izan nuen, baina ni lanean hasita konturatu ziren ez zutela hori nahi. Behatokia, partaide asko dituen euskalgintza osoko erreferentea zen; horrela zerbait eginez gero norbaiti min egiteko aukera handiagoa zegoen. Urteroko euskararen eskubideen urraketen notarioa nahi zutela ohartu ziren gerora eta ez ekimeneko norbait. Kolektibo minorizatuentzat ez da nahikoa bere aldeko legea ateratzea; babesteko neurriak indarrean jarri behar dira. Emakumeen eskubideen urraketen aurkakako legea egiten bada, babesteko neurriak ere ateratzen dira. Hemen lege oso aurrerakoiak egiten dira, baina herritarrei ez zaie horren berririk ematen. Nik ez nekien Gipuzkoako Diputazioko langileek En erdera por favor esatea debekatua zutenik. Horren berri ez dugu euskaldunok. Legeak dioenez funtzionari euskaldun bati deitu behar dio.

Euskararen Kontseiluaren lana egokia al da oraintxe?

Lehen aipatu ditudan arrazoiengatik ez. Ni aspertuta nago kexatzeaz, nik agindu egin nahi dut. Kexatzearekin batzuk gustura daudela ematen du. Bere bizimodua kexatzea dela, alegia.

Euskal gizarteak bereganatua al du euskararen normalizazioaren auzia?

Euskara denona izan behar badu, gu ez bezalako euskaldunak gure artean onartu egin behar ditugu.

Ez. Gizarte zati handienari ez zaio axola eta arduratzen den zati txiki horrek uste du gehiengoari axola zaiola euskararen normalizazioa. Lehenik, gure egoera zein den aitortu egin behar diogu geure buruari, alkoholikoek egiten modura. Euskaltzaletasuna ez da erabakitzeke ardatza. Atutxarengan zer da erabakigarria ertzain buru izatea edo bere euskaltzaletasuna? Euskara ez da elkartasun motibo izatera iritsi. Euskaltzaletasuna indar ardatz izatea izan behar du gure erronka. Kontseilua eta erakundeen aldetik euskararen inguruko izugarritzko burokratizazioa daukagu. Biziagoak diren ekimenak behar ditugu. Hemen euskaltzaletasuna falta da. Nirekin euskaraz aritzen den bat, badakien beste edozeinek erdaraz egiten ikustea gogorra da. Dena ez dago erakundeen esku, norberaren ekimenaz euskaltzaletasuna loratu egiten da. Hemen euskaltzale gehiago behar ditugu.

Zer dela eta osatu duzu Euskararen Egoerari Irizten liburua?

Euskararen Unibertsoaren Jardunaldietan duela hama-



lau urte azaldu nuen bertan aipatzen dudana. Niri mitoak txikitzea gustatzen zait. Planak eta egitea ondo dago, baina ez da aski. Euskalgintza motorrik gabe dago, euskaltzale gutxi baitago. Euskarak denona izan behar badu, gu ez bezalako euskaldunak gure artean onartu egin behar ditugu. Desberdina den horrek gure artean gustura egon behar du. Bertso finalean ETAk eraildako aita zinegotzi sozialistari eskainitako kalitatezko bertsoa txalotuko al genuke? Jendeari euskalduntasunera hurbiltzeko gonbitea egin behar diogu eta hori norberaren lana ere bada. Guzti horretaz ari naiz liburuan.

Nolakoa da liburuan azaltzen den euskararen argazkia?

Dena egiteko dago eta okerreko norabidetik aritu gara. Euskaldunen gehiengoa euskaraz ere badakiten erdaldunak dira: hori da hogeita hamar urteko lanaren uzta. Gaur egun denok elebidunak gara. Orain arte ezinbesteko euskaldunek eutsi diote, baina orain ez dago ezinbesteko euskaldunik. Erdarara jotzea errazagoa denez, euskaltzalekasun gabe zulora joango gara. Erdaldunak badiren modura, euskaldun hutsik ez dago eta euskaltzalez eta erdaltzalez hitz egin beharko dugu. Zalekasunak arrakasta izango du, gizartean duen indarraren poderioaz.

Euskara halabeharrez jarri beharreko zerbait al da?

Inori ez zaio alferrikako

lanik egitea gustatzen. Etorrinen pertzepzioa da, bertakoek ere kasurik egiten ez dioten hizkuntza bat ikasten hasi baino lehenagoko zereginak badituztela. Ondarroara bizitzera joan eta euskara ikasi behar izan duen inor ez dut kexaka ikusi. Jendea Bilbon edo Gasteizen kexatzen da, Ondarroan ikasi egiten du. Gure arazoa euskara inposatzeko nahikoa indar ez izatean datza.

Egoerari buelta emateko zer egin behar dugu euskaldunok?

Autokritika beharra aldarrikatzen dut. Hemen urteetan ikastetxeetatik gazte euskaldun ugari atera da eta euskarazko argitalpenak badira... baina gogoetarik egin al da zergatik ez duten gazteek kalean euskaraz egiten edo zergatik ez den gehiago irakurtzen? Euskalgintzan borondate onaren apologia egiten da, baina ez da autokritikarik egiten.

Gainontzeko Kezkak liburua nondik jotzen du?

Euskal Herritik kanpora, munduari begira ditudan beste kezkak azaltzen dira: ekonomiaz, bioaniztasunaz, mestizajeaz, heriotzaz...

Deitura "h"-z idazten duzu... Euskal deiturak euskaraz egoki idazteko auzia konponduko al dugu noizbait?

Gaur egun ezingo nuke nire deitura "h"-z idatzi. Euskaltzaindiaren jarrera salagarria iruditzen zait. Hartsuaga harritik badator eta harri



"Jendeari euskalduntasunera hurbiltzeko gonbitea egin behar diogu eta hori norberaren lana ere bada"

hitzak "h" badu, nik "h"-rekin idaztea gomendatu beharko luke; eta "h"-rik gabe nahi duenak ere, jartzeko aukera izan dezala. Euskaltzaindiak dionez, hegoaldekook "h"-rik gabe idatzi behar ditugu euskal deiturak, eta Iparraldekoek "h"-rekin. Orduan Iparraldean Hirigoien idazten dena hemen Irigoien idatzi behar dugu. Fernando Arretxe Hegoaldekoa da, baina hitz egiten duen euskalkia Iparraldekoa da: "h"-ak ahoskatzen ditu; nola idatzi behar du bere deitura? Euskaltzaindiari gutuna idatzi nion, baina ez nuen erantzunik jaso. 6



Galtzaundi oporretara doa...

irailean indartsu itzultzeko:

- ☀️ Galtzaundi aldizkaria: 328 alea irailaren 3an kaleratuko da
- ☀️ Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketa: irailaren 13tik aurrera lanak aurkezteko epea zabalik.
- ☀️ Irakurle taldea: iraileko tertulia hilaren 9an Bilbao-New York-Bilbao eleberria ardatz hartuta.



Galtzaundi Euskara Taldea.
Nafarroa etorbidea, 6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004
943 654 983
galtzaundi@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com





Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Batek baino gehiagok pentsatuko du: “on-
doan dugun honek zenbat ur edaten duen.
Nik ordea ia inoiz ez dut egarririk sentitzen!”
Hala izaten da askotan, bai, baina bizidun
guztientzat ura beharrezkoa da. Eta gizakiok,
ur kantitate bat elikagaiekin batera hartzen
dugu, hau da, elikagaien konposaketaren
barne dagoen ura. Baina hau ez da nahikoa
gure behar fisiologikoei aurre egiteko.

Koxk! Ez dut egarririk!

Fruta eta barazkiez be-
teriko elikadura bat eman
arren (ur kantitate altuko
elikagaiak dira), ura edatea
behar-beharrezkoa da. Edari
baten funtzio garrantziko-
na, gure organismoari ura
ematea da eta bere barnean
disolbaturik zenbait substan-
tzia izan ditzake; hauek, bi
motakoak izan daitezke:

- Elikagarriak: bitaminak, mi-
neralak, fruta eta barazki
zukoetako azukreak. Es-
nean adibidez, koipe eta
proteinak ere badaude.
- Ez elikagarriak: adibidez,
kafeina, alkohola edo
zenbait gehigarri (neurritz
hartu behar direnak osa-
sunarentzat kaltegarri ez
izateko).

Baina zenbat ur behar
dugu? Eta egarririk sentitzen
ez badut? Ziur jende asko
egoera honetan dagoela,
ezta? Halaxe da, baina hala

ere ura edatea beharrezkoa
da, izan ere, egarria sentitu
baino lehen edan beharko
genuke, batez ere, aktibitate
fisikoa egiten ari geranean.

Gure gorputza ura gal-
tzen ari da jarraian, prozesu
fisiologiko askoren bitartez:
arnasketa, izerdia, gernua,
gorotzak... Galera horiek
konpensatu ahal izateko
ur kantitate nahikoa edan
behar dugu, eta posible
bada, gehiago. Suposatzen
da 70 kg pisatzen dituen
heldu batek 2600 ml-ko
galerak dituela gutxi gora
behera. Elikagaien barnean
dagoen ura eta hauen me-
tabolizazioaren ondorioz
sortzen dena kontutan iza-
nik, 1100 bat ml dira. Beraz,
beste 1500 bat ml (1,5 litro)
ur beharko genituzke egu-
nero. Eguraldia beroa bada
edo kirola egiten ari bagara
, noski, behar hauek altua-
goak izango dira.

Eta ze abantailak ditu hidra- tazio egoki batek?

- Giltzurruneko funtzioa ho-
betzen da, gernu kan-
titate handiagoa eta
argiagoa lortuz. Honela,
giltzurrunek odola ho-
beto garbituko dute eta
hondakin substantziak
erraztasun handiagoz de-
sagerraraziko dituzte.
- Giltzurrunean harriak sor-
tzeko arriskua txikiagoa
izango da.
- Gorotzak ez dira hain leho-
rrak izango eta ondorioz
erraztasunez kanporatu
ahal izango dira.
- Nekea eta errendimendu fi-
sikoarekiko erresistentzia
handitzen da.

Eta seguraski, batek baino
gehiagok jakin nahiko du, fres-
kagarriek funtzio bera betetzen
duten ala ez. Honi erantzuteko,
esan dezakeguna da, alde ba-
tetik, ura hartzeko modu bat ba
dela, baina, bestalde, ez dute

egarria kentzeko balio. Azukrea
eta beste zenbait substantzia
kimikoak direla eta, freskagarri
askok, likido gehiago edateko
gogoaren sentsazioa uzten dute
eztarrian; ondorioz, egarria han-
ditu egiten da. Edari karbonikoei
dagokionez, kontutan edukitze-
koa da ere urdailean narradura
sor dezaketela, beraz, kontuz di-
gestio arazoak baditugu.

Beraz, bai osasunerako eta
bai egarria kentzeko onena ura
da.

Ur baso bat edo bi edate-
ko momentu egokiena berriz,
esnatzen geranean izaten da,
eta hobe epela hotza baino.
Honekin, gauean urdailean
gelditzen diren jariakinak gar-
bitzen ditugu eta giltzurrunen
funtzioa bizkortzen da.



Uztailaren 16an hasiko da Beasaingo Arrastaka mendi elkarteak antolatutako Ehunmilak ultratrail proba

Dena prest Europako ultrat

168 km-ko ibilbidean Gipuzkoako mendirik garaienak gainditu beharko dituzte Ehunmilak Ultratrail-ean izena eman duten mendi-lasterkariak. Horretarako, 48 orduko denbora muga izango dute. Lasterketa Beasainen hasi eta amaituko da, eta mendiz mendi, Goierri, Urola-Garaia, Urola-Kosta eta Tolosaldea eskualdeak zeharkatuko dituzte. "Gogorra bezain ederra" izango dela adierazi du Mikel Valdibieso Arrastaka mendi elkarteak kideak. Lasterkariarentzat ez ezik, antolatzaileentzat ere erronka handia izan da proba hau antolatzea. Dena prest dago ordea, zapatiletako lokarriak estutzea besterik ez da falta.

Erredakzioa

Nondik nora Ehunmilak ultratrail-a antolatzeko ideia?

Gu horrelako lasterketetan parte hartutakoak gara. Hemendik gertuen egiten dena Mont-Blanc-ekoa da. Hau ere probatu genuen: nik bi urtetan jarraian egin nuen. Gustatu egin zitzaigun eta pentsatu genuen, Euskal Herrian tamaina horretako proba batek funtzionatuko lukeela, potentzial handia baitago. Ideia hango hura hona inportatzea izan zen.

Zenbat denbora darama Arrastaka mendi elkarteak hau antolatzeko?

20 hilabete daramatzagu hau mamitzen. Urrian hasi ginen

lehenengo bilerak egiten, probaren bideragarritasuna kalkulatzeko. Krisia dela eta zailtasunak izan ditugu. Gainera lasterketa berria izatean jendeari kosta egiten zaio apustua egitea. Lan handia eskatu digu hau dena aurrera ateratzeko.

Zer nolako lanak egin behar izan dituzte?

Lan zailena lasterketa bera egituratzea izan zen. Ikustea zein arlo zeuden eta nola landu behar genituen. Lehenik eta behin ibilbide bat behar genuen. Hasieratik nahiko argi genuen zirkuitua eta hasierako hori mantendu da aldaketa txiki batzuk eginda. Bi-

garrenik, proba honek aurrekontu izugarria dauka. Lan handiena horrek eman digu: bilera asko egin ditugu, babesleen konfidantza lortu nahian. Gero, herriz herri lan taldeak sortzen joan gara. Baganekien lasterketa pasatzen den herri guztietan babesik lortzen ez bagenuen ezinezkoa izango zela hau egitea. Lan neketsua izan da: inondik inora ezagutzen ez duzun jendearena jo, proposamena aurkeztu, hausnartu eta beraien babesa lortu behar izan dugu.

Zenbat parte hartzaile irtengo dira Beasaindik?

300 parte hartzaile ditugu ibilbide luzerako eta 130 inguru ibilbide motzerako.

48 ordutan 168 km egin beharko dira Gipuzkoako mendirik garaienak gaindituz. Zer azpimarratuko zenuke probaren bereizgarri bezala?

Gogortasuna eta edertasuna. Normalean gogorra dena ederra izaten da. Bi parke natural zeharkatzen ditugu: Aralar eta Aizkorri. Ezagutzen dituenak badaki zein ederrak diren. Gero, Usurben bertan eta Murumendi aldean ere oso leku politak daude, eta berdin ibilbide guztian zehar.


Dendorarik onena zenbatean gertatuko dela aurreikusten da?

Nik uste dut 24 orduz azpitik egingo dutela. Jendeak ezetz esaten du. Izan ere, Europa mailan ezagutzen den probarik gogorrenetariko bat izango da hau. Eten-

gabe igo eta jaisten ibili beharko dute parte hartzaileek. Jendea mentalizatuta ater dadila. Ez da beste probak bezain eramangarria. Gogortasuna erritmo aldaketetan dago, finean, igoeratan eta jaitsieratan bizitzen baitu jendeak erritmoa. Alde horretatik, ibilbidea ezagutzen ez duenak ezusteko handiak hartuko ditu; ezagutzen duenak, gutxienez, mentalizatu egingo da.

Azalduiguzu ibilbidea.

Beasaindik aterata eta Usurberra joko du. Hemendik Mandubialdera joango ginateteke. Gero, Kizkitzatik Isastira eta zuzenean Zumarragara. Bertatik abiatuta Zazpigurutzeko kordala egingo da, Antzuola, Bergara eta Elgoibar igaroz. Azkarateko gainera iritsi eta Izarraitz mendikatea gurutzatuko genuke Azpeitira iritsi arte. Ibilbideko zatirik errazena izango da hau, batez ere zailtasun teknikorik ez duelako eta oraindik jendea fresko egongo delako. Azpeitiatik Ernio aldera joko du ibilbideak eta Ernioetik Tolosara iritsiko ginateteke. Gero, Altzotik barrena Amezetara joango ginateteke eta hemendik Larraitzera. Hemen hasten da festa: 100 kilometroa eta oraindik Txindoki eta Aizkorri gainditu beharko dituzte lasterkariak. Txindoki igo eta Lareotik barrena Lizarrustira joango da lasterketa. Etxegaraten jarriko dugu abituailamendu posturik handiena: zerbait beroa jan eta lo egiteko aukera izango da. Eta hemendik Aizkorri. Desnibel



Galtzaundi 327
10eko uztailek 2

trail gogorrenerako

handiena gaintituta, Andraitx igaro, Zerain pasa eta Mutilora zuzenduko gara. Lierni gaintitu eta Beasainera artekoa geratuko da.

Ibilbide motza antzekoa izango da. Beasaindik atera, Lazkaomenditik Zaldibira jaitsi, Gazteluko leporaino igo eta hemendik Larraitzera joango dira. Bertan, ibilbide luzekoekin topo egingo dute.

Usabalen egingo dute lasterkariak geldiadia. Zer prestatu duzue?

Ibilbideko lehenengo anoa-leku potentea da, "super" deitzen zaion horietakoa... zopak, pasta, arroza eta abar izango da. Dutxatzeak ukera ere emango dugu, eta parte hartzaileek aldeazurretik antolaketari emandako poltsak bertan izango dituzte, arropak aldatu nahi izanez gero. 12 orduko abituailamendua izango da.


Zenbat lagun beharko dituzue egunean bertan lanean aritzeko?

1.500 lagun inguru beharko ditugu. 200 gurutze-gorrikoak izango dira, eta gainontzeak herrietan sortu diren taldeetakoak. Proiektu honen oinarria jendea da. Beasainen bakarrik

300 lagun beharko ditugu. Toloan esaterako turno guztiak beteta ditugu. Koordinatzaile bat izendatu genuen Toloaldeko zatian behar guztiak koordinatzeko. Oargi, Alpino Uzturre eta Aralarko Adiskideak mendi elkartetako ki-deak dira besteak beste lanean arituko direnak. Ikusten den bezala, proiektu honek sozialki daukan pisua ukazina da; ea erantzuna ere tamaina horretakoa izaten den.

Inork ez al dizue esan gizakiaren ahalmenak gaintitzen dituen proba dela hau?

Tira, baliteke proba hau neurritz kanpo egotea, baina nik prozesu baten baitan ulertzen dut. Lehen maratoiak egiten zituena erotuta zegoen eta gaur egun jende askok egiten ditu Ironmanak. Jendea gero eta prestatuago dago eta tekniko ki gero eta baliabide gehiago ditugu. Handitzen doan gurrpil bat da.



ZETA_S_I
MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

kutxa

23

ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK
uztailean goiz
eta arratsalde irekita.
Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

**ZABALA
DESGUAZEAK**
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

irakurri entzun Ikusi

Vikingoen sorterrira

Xabier Mendiguren Elizegi

Ipuin liburu honetan, pertsonaia ezberdinen istorioak kontatzen dizkigu Beasaingo idazle eta editoreak. Pertsonaia gordinak dira, arruntak. Istorioek protagonisten kontraesanak eta inkoherentziak agerian uzten dituzte.




Swords

Morrissey

Britainia handiko indie bandarik garrantzitsuen kontsidera daitekeenaren abeslaria izateagatik egin zen ezaguna Morrissey lauorogeigarren hamarkadan; the Smithsen, hain zuzen. Taldea disolbatu eta aspaldi ekin zion Morrisseyk bere barkarko ibilbideari. Disko

honek 18 "B alde" biltzen ditu, You are the quarry (2004), Ringleader of the tormentors (2006) eta Years of refusal (2009) disketatik jasotakoak. Edizio bikoitza da eta beste CDan Varsovian 2009an zuzenean grabatutako 8 abesti eskaintzen dira.



Villa Amalia

Benoît Jacquot

Pascal Quignard idazlearen "Munduko egunsenti guztiak" eleberrian oinarritutako film honek Ann pertsonaiaren istorioa kontatzen digu. Musu batek bizitza goitik behera aldatuko dio. Tomas bikotea beste emakume bati musu ikustean iraganarekin hautsi eta bizitza berri bati ekitea erabakiko du.



24

Uztailaren 2tik irailaren 3ra arteko hitzordduak

Erakusketa

Aranburu jauregia

- Kultur tailerretako ikasleen lanak ikusgai.

GKO Gallery

- Uztailaren 24ra arte: Pixel Pancho-ren erakusketa.

TOPIC

- Muñecos animados – panpin animatuak erakusketa ikusgai.

Fronton jatetxea

- Uztailaren 31ra arte: "Aluminium erakusketa. Aluminiozko eskulturak eta koadroak ikusgai.

Tolosand-blues 2010

- Uztailak 2: Red House eta Lou Marini 22:30ean Euskal

Herria plazan. The Romanticos 00:30ean Fronton jatetxean.

- Uztailak 3: Mc Jearas Band 19:30ean Amarotz Auzoan. Sherman Robertson 22:30ean Plaza Berrian. Barcelona Blues Connection 00:30ean Fronton Kafetegian.



Mendi irteerak


Alpino Uzturre

- Uztailaren 9tik 11ra: Culfreda

eta Suelza mendiak igotzeko irteera. Izen ematea elkarrean bertan egingo da: alpinozturre@hotmail.com edo 943.65.27.89)

Alegiako mendi asanblada

- Uztailak 3 eta 4: Pirineoetara mendi irteera. Izen ematea ohiko lekuetan.





Paella jatea

Albiztur

- Uztailak 3: Bizkor guraso el-karteak eta udalak antolatuta, paella jatea frontoian. Paellaz gain, entremesak, postrea, kafea eta edaria izango dira bertan. Arratsaldean jolasak eta karaokea. Txartelak salgai daude herriko tabernetan.

Falta diren gazteen oroimen eguna

Bedaio

- Uztailak 3: Mendi irteera eta ondoren afaria bertsolari eta trikitilariekin. Artubi elkarrekin antolatuta.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Clown (hastapena)	2010.07.10	13
Perkusioa eta Dantza afrikarra (hastapena)	2010.07.17	6
Internet + e-administrazioa	2010.07.19	20
Asialdia eta Kirol ikastaroak	2010.07.05	20
2010/11 ikasturtea_Erdi eta Goi mailako zikloak	2010.09.08	1.400 /
Lanbide arloak:		2.000
- Administrazioa, fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea, soldadura, osasuna, kimika, etabar.		

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 2 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Asteazkena, 7 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Astelehena, 12 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Larunbata, 3 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 8 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Astearte, 13 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Igandea, 4 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 9 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Asteazkena, 14 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra
Astelehena, 5 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Larunbata, 10 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Osteguna, 15 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Astearte, 6 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Igandea, 11 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 16 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 327
10eko uztailak 2



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m², 2 logela, sala, sukaldea eta komuna-
rekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egon-
gela handia, bi logela, sala, sukaldea eta
komuna. Berritua, berogailua, sartzeko
prest. 616 278 843

• "Orion pisu/apartamentua salgai, gara-
je eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10
minutura. Harremanetarako telefonoa:
661304125"

• Etxebizitza abuhardilatua salgai Mon-
tezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea
eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzki-
tsua eta bista onak. 685.765.855

• Pisu edo apartamentu baten bila nabil
alokairuan hartzeko. Tolosan edo ingu-
ruan. 656.744.115

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da.
Tamainaz ertaina eta beltza. Berau era-
mateko gurditxo opari. Telefonoak:
943.65.13.45 - 663.621.800

• Txekor idixko limosina zezenetarako
salgai. 943.69.32.18 / 618.185.337



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Zuretzat saria denak ez du zertan besteentzat ere saria izan behar. Zure ustezko "detalle"ekin ez dugu asetzen, berak nahiago baitu beste era bateko zerbitai. Oparitxo bat esaterako. Egin ezazu proba.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Arazoak lanean gaizkiulertu baten ondorioz. Eskarmentu ona, gauzak argi utzi behar direla ikasteko. Zu horrenbeste ez, ondokoa aterako da kaltetuta. Zapore txararekin joango zara oporretara.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Ondo etorriko zaizkizu oporak txip-a aldatu eta aldartea hobetzeko. Bide batez, atsedean egun hauek zure egunerokotasunaren planteamenduari buruz hausnartuaraziko dizute: merezi al dit horrela bizitzeak?



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Oporretarako lekua aukeratzean ez zaitez jendearen iritziaz fidatu, desengainu galanta izan baitezakezu. Horoskopoa zure intuizioari jarraitzea gomendatzen dizu. Bikotekidearekin bikain.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Lagun sarea nahiko ahulduta egon da azken urte honetan. Udara honetan denbora dexente igaro ahal izango duzu lagunekin, eta jabetuko zara, harreman horri eutsi behar diozula, gustura egoten baitzarete batera zaudetenean.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Festaz festa ibiliko zara, eta horrek jende ugari ezagutzeko bidea emango dizu. Baliteke gainera harreman berri hauetatik bizi osorako laguntasun sortzea. Honi irekita egon behar duzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Ibili zaitez tentuz gainean eramaten dituzun ondasunekin. Hartu neurriak kaleko lapurretak ekiditeko. Joera gaiztoen jomuga izango zara, batez ere uztailako lehen bi asteetan.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Une berezi ugari igaroko dituzue. Maiteminduta zaudela jabetuko zara eta sentimendu horiek aspaldi honetan izan dituzun zalantza guztiak uxatuko ditu. Kontuz edari hotzekin.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Hausnarketarako egunak datoz. Etxean jazoko duzuen gertakari batek zure bizitzaren norabideaz pentsaraziko dizu. Pentsatzea ona da, baina bere neurrian. Ez zaitez alferrik gogaitu.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Konturatuko zara pertsona sosegatsua goa izaten ikasi behar duzula. Zure sentimenduak eta erreakzioak kontrolatzen hasiko zara horrela, eta segituan nabarituriko duzu jarrera berri horrek mesede egiten diela zure harremani.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Bidaia lekualdatzarekin erlazionatzen dugu. Udara honek ez dizu leku aldatze handirik ekarriko, baina udara bikaina izango da, eta inguruan duzuren balioaz jabetzeko balioko dizu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Bereziki eder aurkituko zaituzte hurrengo egunetan. Jendearen arretagunea izango zara, onerako eta txarrerako. Kontuz zer esaten duzun, pertsona bat zuri tranpak jartzen dabil ea harrapatzen zaituen.



Dena
astroago
doan garaian




Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goltik behera aldatuko dituen Donostiako saihezbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihezbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >

25 urteko esperientzia



Laguntzeko prest!



FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK

TOLOSAKO TANATORIOA



943 670 040
902 402 900

www.funerariavascongada.com